

Bizikletari buruzko IX. lehiaketa- Euskaraz ipuin irabazlea: **Igor Mercado Azcuenaga**

Zulatu

Eta jakina, unerik okerreanean, zulatu. Bizikletan ibiltzearen ondorioetako bat, baiki, edo lagunen aurrean berriro ere barregarri agertzeko enegarren pasadizoa. Lehenik erorketa izan zen, hain izan naiz traketsa betidanik bi gupilen gainean. Belaunak urratzeaz gain eskumuturra apurtu nuen, esku onena gainera, apunterik txikiena hartzeko ezgauza. Onera egin eta gutxira, katea atera zen, bakero berriak koipez ederki zikintzeko moduan. Ondoren, lapurreta. Jarraian, bigarren eskuko modelo merkea, egunetara zulatu.

Zulatu. Unibertsitatera bidean, tartearen herena behin eginda, euria goitik behera zebilen goizean hain justu, azterketa hasteko ordu laurden eskas geratzen zenean. Ideia Filosofikoen Historia, hirugarren deialdia. Lehenengoan, ez ikasi, ez agertu. Bigarreanean, ikasi eta lo seko geratu. Hirugarrenean, gaua ikasten eman, ikasgaia gainditzeko tenorean eraman eta bide bazter batean mozolo baten gisara botata geratu.

Eta dena aitaren erruz. Bonobusa ez erosteagatik, txirringekin duen tema absurduagatik. Telebistan Tourra, Giroa eta Vuelta galtzen ez dituen horietakoa da aita. Animoak sofatik ematen dituen. Lokartutakoan atoan esnatzen dena katez aldatuz gero, txirrindularitza atzera jartzeko aginduz. Lasterketa nagusietako palmaresa urtez urte aletzeko gai baina etxekoon urtebetetze datak oroitzeko zailtasunekin. Euskal txirrindulari onenen izenak erreskadan, miresentan eta emozioz, hamaika aldiz errepikatzeko joeraduna: "Lasa, Perurena, Lejarreta, Gorospe, Indurain, Olano, Laiseka...". Denak ala denak apostoluak haren ahoan, hortik txapelketa sasoiaren haien zain ibili izana, aita, ama, arreba eta laurok, edozein bihurtune edo aldapatxotan, ahalegin alimaleko hura txalotzeko prest. "Zuen aitari ilusioa egiten dio", amaren ahotik aditzen, hura ere gogaiturik baina eraman handiagaz, bi mukizuak baretzea xede, haizea, bero-sapa edo euria izan, beti kexaka.

Euria erruz goiz hartan ere: mela-mela eginda errepide bazterrean, autoek ene norabidean ura

Bizikletari buruzko IX. lehiaketa- Euskaraz ipuin irabazlea: **Igor Mercado Azcuenaga**

ezaxola altxatu bitartean. Gurpil madarikatuari begira: zergatik izorratuko zen unerik txarreanean, zer arraio zapalduko nuen. Ziraren azpian izerdia eta euria nahastuz. Malkoak soilik faltan erabat urtzeko, baina agindua nien nire emozioei geldirik egon zitezten. Autokontrol ariketa hartan aitarekin oroitu nintzen, halabeharrez. "Ez duk hainbesterako", esango zuen, jarraian txirringan aritzearen

onurak maisuen gisara azaltzeko. Zinez, oraindik ere, txirrindularitza du bizitza. Edozer azaltzeko gai da parabola ziklisten bidez: "egun bat goi-goian hago; maldan behera hurrena", "biharamun oro duk etapa berri bat"... Entzungorrena egitekotan epiko jarriko da, esaterako bigarren mundu gerran erresistentziaren alde Gino Bartallik egindakoa goraiatuz: "tubulareetan! tubulareetan zeramazkin agiriak!".

Errepide bazterrean ez atzera ez aurrera nengoela, Bartalli beharrean emakume gazte bat agertu zen bizikleta gainean, hura ere goitik behera bustirik. "Laguntzarik behar?", galdegin zidan eguraldiarekin bat ez zihoan irribarre zabala ahoan. Baietz adierazi nion, totalka azaldu azterketarena. Orduan, eserlekutik emeki jaitsi eta bere bizikleta luzatu zidan. Ondo bermatzeko campuseko aparkalekuan, berak ere han utziko zuela nirea, gisara elkarri itzultzeko bizikletak. Babu aurpegia geratuko zitzaidan nonbait, berak presatu baininduen handik agudo alde egiteko. Auskalo eskerrak eman ote nizkion ere.

Bizikleta hartara igota, pedal kolpe bakoitzarekin ase sentitu nintzen, ezin biziago. Gizakiarenganako fedea berreskuratu banu bezala, beste mundu bat posible balitz bezala. Baita eroso ere, emakumeentzako koadroak halakoxeak baitira, abantaila hutsa.

Ozta-ozta ailegatu nintzen azterketara. Hala ere, barruan neukan guzti-guztia bota ahal izan nuen, euforia kasik neurtezin baten zurrunbiloan. Irribarretsu, nire buruarekin gustura.

Biharamunak, ordea, txakalaldia zidan erreserbatuak. Neumonia galanta pairatzea ez eze, egunetara azterketako nota heldu zen. Horratx bigarren zuloa: 3.5, gutxi. Ez zegoen ezer

Bizikletari buruzko IX. lehiaketa- Euskaraz ipuin irabazlea: **Igor Mercado Azcuenaga**

erreklamaterik.

Ordutik, aitaren marmarrak marmar, autobusa hartzen dut egun euritsuetan. Leihotik, baina, lurrun eta tanten artetik, bizikleta jakin baten atzetik darrait. Bestelakoetan, eguraldia lagun, txirrindu gaineko ibilaldia luzatzen dut, hiri eta campus, alderrai. Haren peskizan; mezuan izkutu bat tubularean, iltze herdoildu bat eskulekuan unea heltzen denerako prest.